

ASISTENTZIA MEDIKO-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN ESTATISTIKA (ALE) 2006. URTEA


2006an %6,8 gehitu ziren aseguru mediko pribatuak Euskal AEn

Talde-aseguruetan hazi da, batik bat, aseguratuaren kopurua

341.616 pertsonak zuten asistentzia sanitarioko aseguru mediko pribaturen bat kontratatua Euskal AEn ari diren enpresekin 2006an; aurreko urtearen aldean %6,8ko hazkundera da eta azken hamaika urteetako (1996-2006) kopururik handiena, Eustaten datuen arabera.

Poliza-motaren arabera, **banakakoan edo familiarrean** zeuden aseguratu kolektiborik handiena (%47,5); ondoren **talde-aseguruak** (enpresak edo beste kolektiboak, %35,9) eta **mutualitate publikoak** (%16,6).

1. grafikoa: aseguratu kopurua poliza-motaren arabera (1996-2006)



Iturria: Eustat

Aseguratuen kopuruaren hazkundera, asistentzia sanitarioaren adarrean, poliza-mota guztietan gertatu da. **Poliza kolektiboek** izan dute hazkunderik handiena, 2005. urtearen aldean, %10,9. **Banakoak edo familiakoak eta mutualitate publikoak** %5,4 eta %2,8ko hazkunde txikiagoak izan dituzte, hurrenez hurren.

Azpirarratzekoa da **aseguru kolektiboen goranzko pisua** (enpresa batek bere langileentzat zuzenean hitzartuak) asistentzia sanitarioaren aseguratzeari. Mota honetako aseguruak %71,4 hazi dira 1999-2006 aldian, %8ko urteko tasa metatuarekin, eta 2006an aseguratuaren %35,9 dira (%23,7 1999an).

2. grafikoa: Aseguratuen banaketa, poliza-motaren arabera.1999 eta 2006 urteak (%)



Iturria: Eustat

Aseguratuen gehiengo zabal batek (%96,9) **asistentzia sanitario orokorreko (mediko-kirurgikoa) aseguru mediko pribatua** aukeratzen du, espezifikoaren (hortz-haginen aseguru, esaterako) kaltetan.

Asistentzia sanitarioaren aseguru-sektorean bildutako primen kopuru osoa 2006an 184,8 milioi euro da, gutxi gorabehera estatukoaren %4,4 eta Euskal AEko BPGren %0,3. Lehengo urtearen aldean %8,9 hazi zen primen kopurua, Estatukoaren hazkundearen (%9,2) azpitik.

Aseguratuek 1.257.073 kontsulta mediko egin zituzten (2005ean baino %2,9 gehiago), medikuko 3,7 bisitaldi. Hona hemen espezialitate jendetsuenak: traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia. Aseguratuen **ospitalizazioak** 51.117 izan ziren, 3 eguneko batez besteko egonaldiarekin, eta **interbentzio kirurgikoak** 34.431, gehienak kirurgia orokorrean, oftalmologian, traumatologian eta ginekologian.

1. taula: Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen bilakaera

	EAE			Estatukoa	
	2005	2006	Δ06/05	2006	Δ06/05
KARTERAREN LABURPENA					
Aseguratu kopurua	319.788	341.616	6,8	7.123.235	3,7
Poliza kopurua	167.373	177.216	5,9		
Sari kopurua (mila €-tan)	169.744	184.852	8,9	4.196.291	9,2
MODALITATEAK (aseguratu)					
Banakoak edo familiakoak	154.076	162.327	5,4		
Kolektiboak	110.652	122.701	10,9		
Mutualitate publikoak	55.060	56.588	2,8		
MEDIKUEN ETA					
OSPITALEETAKO JARDUERA					
Kontsultak (milakoetan)	1.221	1.257	2,9		
Ospitaleratutako gaixoak	49.236	51.117	3,8		
Ospitaleetan egindako ebakuntza kirurgikoak	33.117	34.431	4,0		

Euskal AEko iturria: Eustat

Estatuko iturria: ICEA(Investigación cooperativa entre entidades aseguradoras y fondo de pensiones)

Ohar metodologikoa: Estatistika honek Euskal AEn establezimenduren bat duten asistentzia mediko farmazeutikoko aseguru libreko entitateen informazioa jasotzen du.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp